



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abuztuaren 8a

86. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea partzialki aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (2. or).
- Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztua (3. or).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Adierazpen politikoa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zenbait neurri abian jar ditzan, Nafarroako Foru Komunitatean ekonomia dinamizatzeko eta enplegua sortzeko. Osoko Bilkurak berretsia (7. or).
- Adierazpen instuzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak, Santiagoko tren istripua dela-eta, bere doluminak adierazten baitizkie biktimen familiartekoei, eta zaurituak lehenbailehen sendatzeko nahia agertzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea partzialki aldatzen duena**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko abuztuaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea partzialki aldatzen duen Foru Lege proposamena onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut erabaki hau argitara dadin.

Iruñean, 2013ko abuztuaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea partzialki aldatzen duena**

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen bidez, erakunde hori sortu zen, Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoen eraginkortasuna eta efizientzia arrazionalizatu, koordinatu eta optimizatzeko antolaketa- eta kontrol-tresna bateratu eta berariazko gisa. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren Administrazio Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 13an, Sektore Publikoa Berregituratzeko II. Plana onetsi zuen. Plan horrek, besteak beste, berarekin dakar sektore horren egitura soiltzea, 13 enpresa izatetik 8 enpresa izateraino, aktiboak saltzea eta plantillak berregituratzea aurre-erretiroen, soldata-murrizketen eta kaleratzeen bitartez, horrela soldata-masa % 15 eta % 20 bitarte gutxitzeko.

Enpresen sektore publikoak garrantzi handia du jarduera ekonomikoaren dinamizatzaile gisa eta lanpostu-sortzaile gisa, eta estrategikoa da

Nafarroaren garapenerako; gainera, hura Berregituratzeko II. Planean jasotako neurriek eragin larria izan dezakete. Hori dela eta, komeni da Nafarroako Parlamentuak parte-hartze handiagoa izatea plantillak berregituratzeko eta doitzeko prozesuetan.

**Artikulu bakarra.**

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legeko 12. artikulua aldatzen da. Honako testua izanen du:

"12. artikulua. Parlamentuaren kontrola.

1. Nafarroako Parlamentuak aurrez baimena eman beharko du honako eragiketak egiteko:

a) Sozietate publikoetako partaidetzak eskualdatzea edo besterentzea Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa osatzen dutenez beste pertsona batzuei.

b) Fusioak, zatitzeak, eraldatzeak, desegiteak, likidazioak eta beste edozein berregituratze-eragiketeta, sozietate publikoaren izaera galtzea dakarrena.

c) Enplegu-erregulazioko espedienteak eta plantillak berregituratzeko planak, sozietate publiko baten langileen ehuneko hamarri baino gehiagori eragiten dietenak.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako baimena Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko organoek eskatuko dute, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren bitartez.

3. Administrazio Kontseiluko buruak, zuzendari nagusiarekin, gutxienez ere urtean behin eginen du agerraldia Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Batzordean, urteko aurreikuspenei buruz eta kasu-ekitaldian eginiko kudeaketari buruz informatze-

ko. Korporazioa osatzen duten sozietateei buruz ere informatuko du. Administrazio Kontseiluko buruak Korporazioko zuzendari nagusia izendatzen edo aldatzen denean ere eginen du agerraldia.

4. Administrazio Kontseiluko buruak, zuzendari nagusiak eta Korporazioa osatzen duten sozietateetako zuzendari nagusiek edo kudeatzaileek, eskatzen zaien guztietan eginen dute agerraldia Nafarroako Parlamentuan, Nafarroako Gobernuak kideak balira bezala eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, informazioa emate aldera jarduerari, funtzionamenduari, egiturari eta eskatzen zaien beste edozein inguruabarri buruz".

#### **Xedapen iragankorra.**

1. Foru lege honetan ezarritakoaren indarrez Nafarroako Parlamentuaren alde aurreko baime-

na behar duten eragiketak gauzatzeko, eragiketa horiek 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera erabaki badira edo erabakitzen hasi badira eta erabat burutu gabe baldin badaude, Nafarroako Parlamentuaren baimena beharko da betiere, prozedura berari jarraituz.

2. Betiere, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren Administrazio Kontseiluak Sektore Publikoa Berregituratzeko II. Plana igorri beharko dio Nafarroako Parlamentuari, eztabaidatu eta onetsi dezan.

**Azken xedapena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 148 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena.**

### **ZIOEN AZALPENA**

Ukaezina da gobernu kanpoko erakundeek garrantzi handia dutela krisi testuinguru honetan. Nafarroako errealitate sozialari buruz duten eza-gutzatik abiatuta, lan paregabea egiten dute, ez soilik solidaritate-baloreen inguruko prestakuntzari dagokionez, ezpada zailtasunak dituzten pertsonen lagun egiteari dagokionez ere.

GKE-en lan-esparrua oso zabala eta anitza da, garapenerako lankidetzaren arloko lanetik hasi eta ezgaitasun motaren bat duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen saiatzen diren erakundeetaraino, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonekin lan egiten duten gizarte-entitateetatik pasatuta.

Hortaz, erkidego honetan eta une honetan, gizarte-entitateen sektorea esparru estrategiko bat da, gizarte-, giza eta ekonomia-garrantzi handia duenez babestu eta sendotu beharra dagoena.

Edozein estamenturentzat laguntza publikoak, haien kantitateak, egonkortasuna eta iraunkortasuna garrantzitsuak baldin badira, gisa honetako

gizarte-entitateentzat hil ala bizikoak dira, garatu-tako elkartasun-lana eraginkorra izanen bada.

Hortaz, diru-laguntzen eta laguntza publikoen deialdian egonkortasuna egon beharko litzateke urte urte laguntza horiek emateko datari dagokionez, entitate horiek egiten duten lanarekin eta ematen dituzten zerbitzuekin bat etor dadin haien plangintza. Ezin da egon orain gertatzen den bezain desfase handia, ezin da gertatu martxoan oraindik egin gabe egotea zenbait diru-laguntzaren deialdiak eta beste zenbait ebatzi gabe egotea, zeren egoera horrek ezegonkortasun eta ziurgabetasun ekonomikoa sortzen baititu, eta ezin dugu ahanzi ziurgabetasun horrek eragina daukala entitate horiek ematen dituzten prestazioen eta mar-txan jartzen dituzten neurrien kalitatean. Sektore honek Nafarroan duen garrantziari buruzko oinarrizko adostasun bat baldin badago, garrantzi horren araberako finantzaketa-sistema bat eduki behar dugu.

Azterketa eta analisi ugari bat etorririk adierazten dute Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko (GEHS) entitateak diruz laguntzeko Administrazio Publikoak baliatzen duen sistema desegokia eta eskasa dela, eta ez dela egokitzen errealtetera eta sektore horrek azken hamarkadetan izandako bilakaerara, eta hori oztopo oso garrantzitsua da sektorearen garapenerako. Finantzaketa desegoki hori erakundeek gure gizarteko pertsona ahulenei ematen dizkieten zerbitzuen kalterako da, eta horrek konparaziozko bidegabekeria bat dakar bestelako entitate batzuekin alderatuz gero. Egungo krisi egoeran, finantzaketa arazo egiturazkoak larritu eta are gehiago geratu dira agerian, ahal bada; izan ere, zerbitzuak eta programak gainezka egiten ari dira, halako moduz non gizarte entitateek ematen duten arreta zabaldu eta areagotu behar baitute, bere finantzaketa bideak murriztu eta prekarizatzen diren bitartean.

GEHSko entitateek era jarraituan egiten dituzten jardueretatik asko, interes publikokoak izateaz gain, behar-beharrezkoak dira gizartean; izan ere, pertsona ahulenen sustapenera bideratuta daude, oinarriko beharrezkoak erantzuten diete, eta gizarte zerbitzuekiko eta bestelako zerbitzu publikoekiko lankidetzak estuan gauzatzen dira. Hala ere, denboran zehar sendotu eta eraginkortasuna erakutsi arren, eta Administrazioak berak eta gizarteak premia bizikotzat hartu arren, praktikan baldintza prekarioetan jardun behar izaten dute, batzuetan etenak eginez, deialdien atzerapena dela-eta, denbora aldetiko zalantzenatik eta kudeaketa-baldintza eta administrazio-kontrol desegokiagatik.

GEHSak hazkunde garrantzitsua izan du azken urteotan, bere jardueren kalitatea hobetu egin da, administrazioekiko lankidetzak gero eta estuagoa da, eta bere eginkizun soziala ezinbestekoa da. Hala ere, garatzen dituzten jarduerak finantzatzeko formula egokirik ez aurkitzeaz gain, egun dauden konplexuago egin dira, eta, ondorioz, gero eta zailagoa da proiektuen bideragarritasuna.

GEHSari eta horrek gauzatzen duen jarduerari egokitutako legedirik edota indarrean dagoen foru legeari egokitutako arau-garapenik ez izatearen ondorioz, Administrazioaren eta gizarte entitateen arteko harremana, askotan, baldintzatuta egoteaz gain, diru-laguntzak eskuratzeko eta justifikatzeko administrazio-prozeduren kontrolera murriztuta geratzen da. Elkarlanak, helburu komunak lortzeko lankidetzak, non bi aldeek elkarrekin jarduten duten eta ahalegina egiten duten, ez du lehentasunik, ezta azken onuradun izanen diren pertsonen ikuspegiak eta haien beharrezko asebetezake ere; aldiz, gastuaren kontrola da dena baldintzatzen duena, eta administrazio-komplexutasuna eta burokratizazioa gero eta handiagoak dira, eta hori oztopo bihurtzen da entitate txikiak diru-laguntzak eskuratu ahal izateko, eta, horretaz gain, gastuak areagotzen ditu, efizientzia murrizten du eta azken helburua bistatik galtzea eragiten du.

Zorpetze-ratioa oso txikia bada ere, hamar entitateetik seik onartzen dute likidezia arazoak dituztela. Datu horrek adierazten du entitateek egoera ekonomiko saneatua dutela, baina kezkatzekoa da, kontuan hartzen badugu likidezia arazoak dituzten entitate askok beren burua behartuta ikusten dutela hornitzaileei eta langileei egin beharreko ordainketak atzeratzera, edota beren jarduerak atzeratzera. Horrekin lotuta, egiaztatu da horietatik % 40 baino gehiagok mailegu edo kreditu pertsonalak eskuratzen dituztela.

Likidezia arazoen ondorioz, entitateek bi zailtasun mota izaten dituzte: alde batetik, kredituak eskuratzeko, batzuetan entitatearen sustatzaileen ondasunen abalarekin –Administrazioak ez ditu bere gain hartzen kreditu horien kostu finantzarioak, eta, hala, gehiegizko arriskuak, beharrezkoak ez direnak, areagotu egiten dira–, eta, bestetik, kredituak eskuratzeko zailtasunak, finantza-entitateek aplikatzen dituzten arrisku-balorazioko sistemak ez daudelako sektorearen errealtetera egokituak. Eta horixe bera gertatzen da abalak izatea beharrezkoa denean. Ez da lanik egin Administrazioaren eta finantza-entitateen artean akordioak lortzeko, gizarte-entitateei likidezia errazte aldera, horrela entitate horiek ordainketak egitean duten atzerapena zuzen dezaten. Horretaz gain, sektore-

aren beharrianetara eta errealitatera egokitutako tresna finantzarioak falta dira.

Hori dela eta, foru lege honen xedea da, edozein entitatek, oro har, duen kontuak emateko betebeharra bazter utzi gabe, arintzea eta erraztea Foru Komunitateko Administrazioak gizarte-entitatei ematen dizkien diru-laguntzen izapidetzea, epeak eta ordainketa.

### 1. artikulua

Aldatu egin da Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 14. artikulua, eta 4. idatz-zati berri bat gehitu zaio. Honela gelditu da:

"4. Oinarri arau-emaileetan ezarritako ebazte eta ordaintze epeak ez badira betetzen, onuradunek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari exijitu ahalko diote legezko interesa edo ordaindu behar izan dituzten banku-abalen kostua, hori handiagoa bada."

### 2. artikulua

Aldatu egin da Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17. artikulua, eta 3. idatz-zati berri bat gehitu zaio. Honela gelditu da:

"3. Gizarte ekintzako entitateentzako diru-laguntzen kasuan, horiek emateko prozedura urte bakoitzeko urtarrian hasiko da, eta diru-laguntza emateko ebazpena hiru hilabeteko epean eman beharko da, gehienez ere."

### 3. artikulua

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 27. artikuluko 4. idatz-zatia aldatu egin da. Hona testu berria:

"4. Baldin eta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren diru-laguntzaz gain, funts edo baliabide berekiak nahiz pribatuak edo bestelako diru-laguntza publikoak erabiltzen badira jarduerak edo esku-hartzeak kofinantzatzeko, frogatu egin beharko dira funts horien zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jardueretara aplikatu izana, entitateak berak emandako ziurtagiriaren bidez, funts pribatuen kasuan, edo zenbatekoa eta proiektua zehazten dituen aldeko ebazpenaren kopiaren bidez, diru-laguntza publikoen kasuan."

### 4. artikulua

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 33. artikulua aldatu egin da. Hona testu berria:

"33. artikulua. Diru-laguntzen aurrerapena.

1. Oro har, aldeztu aurretik ordainduko dira irabazi asmorik gabeko entitateei edota horien federa-

zio, konfederazio edo elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzak, gizarte ekintzako proiektu edo programak finantzatzera bideratuak, baldin eta diruz lagundutako jardueraren gauzatzea aldi baterako finantzatzeko baliabide nahikorik ez badute.

Aurrerakinak modu honetan ordainduko dira:

a) Emandako diru-laguntza 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada, ordainketa bakarrean ordainduko da, aurrerakin gisa, diru-laguntza emateko ebazpena ematearekin batera.

b) Emandako diru-laguntza 60.000 eurotik gorakoa bada, gutxienez bi zatitan ordainduko da: horietako lehena, diru-laguntza ematea ebaztearekin batera, eta hurrengoa (edo hurrengoak) ebazpen horretan ezarritako epeetan edo epe-mugetan. Zati-tutako ordainketak ez dira izanen, inolaz ere, 30.000 euro baino gutxiagokoak. Kasu horretan, diru-laguntzaren hurrengo ordainketa egiteko, beharrezkoa izanen da exekuzioari buruzko agiri bidezko justifikazio ekonomikoa aurkeztea, aurretik ordaindutako zenbatekoari dagokiona.

2. Gainerako onuradunentzat, emandako diru-laguntzaren ordainketak aurreratu ahal izanen dira diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan hori berariaz aurreikusten denean soilik, oinarriok ezarritako muga, betekizun eta, hala egokitzuz gero, bermekin, eta, betiere, diru-laguntzaren xedea betetzeko funts-horniduraren beharra justifikatzen baldin bada.

3. Lehenengo idatz-zatian aurreikusten ez diren onuradunen kasuan, nahitaez ezarriko dira bermeak aurrerakinak 60.000 euro baino gehiagokoak direnean, kasuetan, hurrengo kasuetan salbu:

a) Onuraduna administrazio publiko bat edo sektore publikoko entitate bat denean.

b) Defizitaren konpentsazioak ematen zaizkirenean etengabeko prestakuntzako programetan horretarako eskubidea duten enplegu zentro berezietan.

4. Halaber, zilegi izanen da aurreko idatz-zatian aipatutako bermea ez eskatzea sindikatuei eta enpresa-erakundeei, "Nafarroako Lan Gatazkak Konpontzeko Epaimahaia" Fundazioari eta irabazi asmorik gabeko kultur entitateei, kasu bakoitzaren inguruabar bereziak kontuan izanik ogasun arloko kontseilari eskudunak hala erabakitzen duenean.

5. Diru-laguntzen aurrerakinak oinarri arautzaileetan ezartzen diren epeetan justifikatu beharko dira, eta diru-laguntzen justifikazioari eta ordainketari buruz oro har adierazitako betekizun berberak

bete beharko dira, foru lege honen 32. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako txostena barne dela.

#### **5. artikulua**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari artikulua berri bat gehitu zaio. Hona testu berria:

33. bis artikulua. Exekuzioari buruzko epeak.

"Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko epeak zenbatzerakoan, oro har, diru-laguntza ematen duen ebazpenaren data hartuko da hasierako datatzat. Ekintza horiek gauzatzeko epeak hasieran emandako denbora halako bira bitarte luzatzen ahalko dira, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzetan."

Edonola ere, gizarte entitateak hala eskatzen badu, hasierako data, behin ebazpena jaso ondoren, diru-laguntza emateko ebazpena bera baino lehenagokoa izan daiteke, betiere deialdia egin den urte naturalaren barruan izanez gero.

#### **6. artikulua.**

1. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari bi xedapen gehigarri berri gehitu zaizkio. Hona testu berria:

"Lehen xedapen gehigarria. Finantza entitateetako hitzarmenak.

Nafarroako Gobernuak, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko entitateei likidezia izateko eta kredituak eskuratu ahal izateko erraztasunak emateko, lankidetzaren hitzarmenak sustatuko ditu Nafarroan jarduten duten finantza entitateekin.

Bigarren xedapen gehigarria. Gerakina

1. Edozein arrazoi tarteko, esleitu gabeko gerakinik geldituko balitz Nafarroako aurrekontu orokorretan gizarte entitateetarako aurreikusitako diru-laguntzetarako kredituetan, premiazko deialdi bat onetsiko da aurrekontu-ekitaldi beraren barruan, foru lege honetan aurreikusitakoari jarraikiz."

2. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen xedapen gehigarri bakarra hirugarren xedapen gehigarria izatera igaro da.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Adierazpen politikoa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zenbait neurri abian jar ditzan, Nafarroako Foru Komunitatean ekonomia dinamizatzeko eta enplegua sortzeko.**

*OSOKO BILKURAK BERRETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko abuztuaren 6an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen berrestea "Adierazpen politikoa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen duen zenbait neurri abian jar ditzan, Nafarroako Foru Komunitatean ekonomia dinamizatzeko eta enplegua sortzeko". Adierazpen horren testua Nafarroako Aldizkari Ofizialean

2013ko uztailaren 19an argitaratu zen, 80. zenbakian.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 114.1. artikuluan xedatutakoa betez argitaratzen da berrespen hau.

Iruñean, 2013ko abuztuaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Adierazpen instuzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak, Santiagoko tren istripua dela-eta, bere doluminak adierazten baitizkie biktimen familiartekoei, eta zaurituak lehenbailehen sendatzeko nahia agertzen baitu.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko uztailaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Lehenengoa: Nafarroako Parlamentuak bere doluminak adierazten dizkie biktimen familiartekoei, eta zaurituak lehenbailehen sendatzeko nahia agertzen du. Halaber, Nafarroako herriaren elkartasuna eta babesa helarazten dizkio Galiziarri une zail hauetan.

Bigarrena: Nafarroako Parlamentuak eskertu eta nabarmendu egiten du erreskate-taldeen, osasun-langileen eta boluntarioen lan garrantzitsua, gertakari tragikoa suertatu zen lehenengo unetik dena eman baitute biktimei eta beren hurbilekoei laguntzeko."

Iruñean, 2013ko uztailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

